

## **GOBERNU BATZARRA**

2005. 12. 05

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta bosteko abenduaren 5ean, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 8.00etan hasita. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrenda aztertzeke eta erabakiak hartzeke:
<b>Jokin Bildarratz Sorron</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Jokin Azkue Arrastoa</b>	
<b>Andoni Iturzeta Arbillaga</b>	
<b>Idazkaria:</b>	1.-Aurreko akta onartzea.
<b>Jose Luis Unanue Ugalde</b>	2.- Musika Eskolako bajak.
	3.- Aparkatzeko txartel bereziak.
	4.- Antolakuntzak eta zailtasunak.
	5.- EPAko obrak: hitzarmena Inmakulada ikastetxearekin
	6.- 33. Zenbakia duen faktura-zerrenda.

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2005eko azaroaren 28an egindako batzarraren akta azertu eta aho batez onartu da.

### **2.- Musika Eskolako bajak.**

Gai hau beste baterako uztea erabaki du Batzarrak, eta bien bitartean batzordeak azter dezala baldintzak bete diren, hain zuzen, honako hauek:

. Ordenantzaren eranskinaren laugarren puntuak diona:

*“Abenduaren 15<sup>a</sup> baino lehen baja eskatzen dutenek eskubidea izango dute ikastaroaren hirugarren kuota ez ordaintzeko, baldin eta baja nahitaezko arazoiren batek eragin badu. Nolanahi ere Gobernu batzordeak alde aurretik akordioa hartu behar du eta Kultura batzordeak aldeko diktamena eman behar du”.*

. Kuota ez ordaintzea horrek zein eragin duen serbitzuan edo ikastaroaren antolakuntzan.

### **3.- Aparkatzeko txartel bereziak.**

Gaia erabaki gabe geratu da hurrengo batzar arte.

### **4.- Antolakuntzak eta zailtasunak.**

Jai batzordeak bidalitako testu hau irakurri da:

***“ Antolakuntza eta zailtasunak.- Bilera honetan parte hartu duten elkarteetako ordezkariak bat datos R. Diez azaldutako iritziarekin. Alegia, antolakuntzaren baten ardura hartzen duten elkarteek uste dute Udalak ez duela nahikoa laguntzen. Baimenak lortzeko gero eta arazo gehiago daude, eta gastuei aurre egiteko onartutako dirulaguntzak jasotzeko zailtasun gehiegi jartzen dira. Diotenez, egoera honi irtenbiderik bilatzen ez bazaio, elkarteek utzi egingo diote antolakuntzen ardura hartzeari.”***

Batzarrak erabaki du Jai batzordeko eta Haziendako lehendakariak aztertu dezatela egoera eta diru laguntzak ahalik eta azkarren erazteko era, baina gastuen agiriak aurkeztea ezinbestekoa da, legean ez ezik, gizartean ere.

### **5.- EPAko obrak: hitzarmena Inmakulada ikastetxearekin.**

Gaia beste baterako utzi da, hitzarmenaren edukia Hezkuntza departamentu buruarekin hobeto aztertzeko.

### **6.- 33. Zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzaitzak 33. Faktura-zerrenda, 104.139,54 € koa, aurkeztu du.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Aipatutako 33. fakturen-zerrenda onartzea.

**BIGARREN.-** Onarpenaren berri Kontuhartzaileari ematea.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jotzen da, goizeko 10etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**